



HCRE BERDINTASUN

PROIEKTUA

Aurkibidea

SARRERA	3
IRIZPIDEAK	3
BALIOAK ETA AHALDUNTZEA	4
BALIABIDEAK	5
ERASO SEXISTEN AURKAKO PROTOKOLOA	5



SARRERA

Txosten honetan HERNANI CLUB RUGBY ELKARTEKO BERDINTASUN proiektua aurkeztuko da.

IRIZPIDEAK

ZUZENDARITZA BATZORDEA

- 1- Organigrama eguneratu eta publikatu.
- 2- HCRE proiektuaren zutabeetako bat BERDINTASUN PROIEKTUA da
- 3- Klubaren antolakuntzan parte har dezaketen pertsonak zein beharrak hautemateko prozedura bat prestatu. Klubean bertan iragartzeko modua pentsatu. Jokalarien fideltasuna beste postu batzuetarako ... etab.

ESTATUTUAK ETA DOKUMENTAZIO OFIZIALA

Estatutuak genero ikuspegi horretatik berrikusi; edukiari, hizkuntzari eta forma diskurtsiboari dagokionez. Errebisatuta. Lehenengo artikulua moldatu, emakumeen errugbiaren eta errugbi inklusiboaren garapenari erreferentzia egiten zaion paragrafoa. Transbertsalitate handiagoa eman bie. Aldaketa ofiziala egitea faltako litzateke.

KUDEAKETA ESTILOA ETA ERABAKIAK

Berdintasunaren gaiaz arduratuko den saila osatu
Klubak emandako kirol praktikarekin lotutako zeharkako gaiak biltzen dituen organigraman gizarte atal bat dago. Atal hauek klubeko kideen sexua, klasea, etnia, baldintza edo gaitasunak kontuan hartu gabe, tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko lan egingo duten atalak biltzen dituzte.

KUDEAKETA ETA KIROL PLAN ESTRATEGIKOA

Kirol plan estrategikoa ohikoa da, kategoriaka. Izan ere, 16 urtera arteko kategoriak, mixtoak dira. Parte-hartzaile kopurua eta praktikaren kalitatea handitzea ahalbidetzeko asmoarekin, emakumezko jokalarien jarraipena eta garapen plana sortzea, bilakaera osoan zehar, kategorien arabera, mistoetatik hasi eta emakumezkoen senior kategoria erreferentzialera iritsi arte.
Emakume seniorren talde estrategikorako proposamena, beraien beharrak antzemateko



AURREKONTUAK

Diru-partida zehatzak esleitzea atal bakoitzeko arduradunen proposamenen arabera.

Sortu berri den eta berdintasuna, inklusibitatea, sozializazioa eta hizkuntza garatzea helburu duen Proiektu Sozialaren arloari diru partida zehatza esleitzea.

INFORMAZIOA ETA DATU JASOKETA

Gizonezkoen eta emakumezkoen jokalariei buruzko informazioa generoaren arabera banatzen da, baina beste rol batzuei dagokiena; harpidedunen eta elkarteko kideei buruzkoa esaterako, ez.

Hausnartu klubak generoaren arabera banatutako ikuslegoaren eta partaidetzaren nozioa izatea ideia ona izan daitekeen ala ez. Sor daitezkeen eragozpenetan pentsatu. Hala badagokio, sartu desagregazio hori hurrengo datu bilketarako

JARDUEREN PLANGINTZA ETA PROGRAMAZIOA

Gero eta kezka handiagoa dago genero-inpaktuaren arabera balorazio positiboak dituzten jarduerak planifikatu eta burutzeko, baina instalazioak txiki gelditu dira, beraz, batzuetan aurreikusi gabeko ezusteko txikiak izaten dira. Hala nola, aldagelen esleipena (jokalari zein epaile edo entrenatzaileenganakoa), partidaren ordutegien plangintza ...

Instalazioen haunditzea behar beharrezkoa da

LANGILE ETA BOLONDRESAK

Kudeaketa sail ezberdinen arabera berezita dago, eta data ofizialen lehentasunen arabera egiten da lan. Sistematika-maila ertaina izango litzateke.

Klubak dituen behar ezberdinak kontuan izanda, behar horiek asetzeko gaitasun propioa duten eta klubarekiko afinitatea duten pertsona bolondresak dira nagusiki rol hau osatzen dutenak.

Zuzendaritza eta kudeaketa postuetan ez dago ordainsaririk.

Kide laguntzaileek irabazi asmorik gabeko zerbitzuak eskaintzen dituzte, afinitate eta lankidetzaren kontuagatik.

Generoa ez da berez kontuan hartzen, hurbilketa borondatezkoa baita, baina emakumeen parte hartzea handitzen ari da pixkanaka, naturalki.

KOMUNIKAZIOA

Berdintasunari buruzko atala webgunean sartzeko proposamena, proiektu honetan oinarrituta, klubeko kudeaketa orokorrean genero ikuspegia txertatzeko. Arlo sozialaren gainerako ataletara zabaldu (inklusiboa, lankidetzaren sozialak, hizkuntza).

Berdintasuna, inklusibitatea eta guztion kirol praktikarako zeharkako bestelako proiektu sozialak bilduko dituen HERRI ONURARAKO ENTITATEA sortuko da, eta sareetan bere atala izango luke.

BALIOAK ETA AHALDUNTZEA

Kontratazioari dagokionez, nesketan errugbia praktikatzeko erreferentziak sortzen ere saiatuko gara, emakumezko eta gizonezko jokalariei bana, eskoletara eramanda.

Emakumezkoen jokalariei nagusiak eskolara joatea eta beste kategoria batzuetako entrenamenduetan parte hartzea sustatuko da, eskolan ere emakumezko jokalariei erreferente bihurtzeko.

Emakume Jokalariei izendatu kaptazio lanetarako.



Emakumeen jokalarri seniorrak, eskolako entrenamenduetara joatea sustatu behar da. Eskolako jokalarriak etxeko partida batzuetara gonbidatzea taldearekin egoteko. Ohiko genero binomialetik kanpo dauden pertsonak sartzearen aukerak landu.

BALIABIDEAK

Babesleak orokorrak dira, generoa edozein izanda ere, kategoria desberdinetako beharren arabera banatzen dira diru-sarrerak.

Nesken parte hartzea sustatzea baliabideak sortzen dituzte klubeko kontuetan.

Aldagelen banaketarako protokoloa. Kategoria mistoetan, parte-hartzen duten neskek aldagela propioa izatea bermatzen da.

Lehiaketari eta kirol jardueren egutegiari dagokionez, kontuan hartzen da generoaren eragina, eta gero eta nabarmenagoa da instalazioaren ezgaitasuna egoera jasangarria izan dadin. Instalazioen handitzea behar dugu. Beste ekitaldi batzuen eta kirolaz kanpoko eta zeharkako jardueren planifikazioa egitea, horri esker, generoan izan dezaketen inpaktuaren inguruan denborarekin eta hausnarketa on bat eginez prestatzeko aukera izango dugu.

Maila guztien artean denborak modu berean banatzea. Ordutegiak erlatiboak dira lanetik kanpoko eta eskolaz kanpoko denborarekin eta adostasunera iristea da helburua. Berriz ere instalazioaren eskasia nabarmentzen da.

Kide guztiek beharrezko espazioa izan dezaten, ekipamendu eta espazioen banaketa eta esleipena kategoria guztien artean egingo da. Bi generoentzako aldagelak egongo dira.

Berrikusi genero eta kategoria desberdinetako kideen eraginez, kluba izaten ari den hedapenaren eta behar berrien arabera. Derrigorrezkoa izango da instalazioen handitzea plan hau aurrera eraman ahal izateko

Jokatzekeo ekipazioak modernoak dira eta kirolaren beharrei erantzuten die estereotipoak edo irudi sexistak saihestuz. Neurriak jokalarri bakoitzaren fisiologiarekin bat etor daitezten saiatzen da.

Partidetako kartelak neska-mutilen argazkiekin kaleratuko dira.

ERASO SEXISTEN AURKAKO PROTOKOLOA

Protokolo hau berezko beste txosten batetan lantzen da, "HCRE Rugby Elkarteko protokoloa sexu-indarkeria prebenitzeko" txostenean hain zuzen ere.

